

la perfumería

2019KO UDAZKENA

de Mercadona

**IKASGELAKO
ONENAK**
ONDO HASI
IKASTURTEA

Edertasunezko
UDAZKENA

TIP-AK, PRODUKTU
ARRAKASTATSUENAK
ETA ASKOZ GEHIAGO

Grina
NATURALA

EZAGUTU DENBORALDI HONETAN ZIRRARA
ERAGITEN DUTEN KOLORE ETA TESTURAK

pasión
NATURAL
deliplus
COLOR





LABURPENA



06 ADINAREN AURKAKO SEKRETUA

Urteetako ikerketen ondoren, eta dituen printzipio aktibo eraginkorrei esker, edertasun-programa mediko integral hau benetako iraultza izan da aurpegia gaztetzearen alorrean. Zure azalaren berezko oreka berrezarri eta haren bizitasuna berreskuratzeko prest?

08 EDERTASUNEZKO UDAZKENA

Udaren ostean itxura ona izateko, azala suspertu eta indarberritu behar da. *Tipak*, produktu arrakastatsuenak eta askoz gehiago...

14 GYM TIME

Oporrak eta udako gehiegikeriak atzean utzi ondoren, gimnasia itzultzeko garaia da, berriro sasoi betean egoteko. Gogoan hartu zer izan behar duzun beti entrenamenduaren aurreko eta osteko nezeserrian, eta listo!

16 GRINA NATURALA

Liluratsen duten kolore eta testurak, udazkenean inspiratuak. Ez huts egin makillajeko berriena: Grina Naturala bilduma guztiak harrিতa uzteko prest dago.

21 GEHITZEKO

Proteina, bitamina eta mineralak. Zaindu zure burua barrutik ere: eman zure gorputzari urteko hilabete beroenetatik berreskuratzeko behar duena.

22 NAILMANIA

Denboraldi honetan, azazkalak izango dira protagonista. *Geruza bat*, eta listo bildumako tonu berriak ezagutzeko prest?

27 ZOOMA BEGI ETA EZPAINETARA

Askotariko begi- eta ezpain-formak daude; ikusi zein den zurea, eta ikasi ahalik eta probetxu gehiena ateratzen.

30 IKASGELAKO ONENAK

Heldu da eskolara itzultzeko garaia: aholku eta ideia hutsezinak ikasturtea ongi hasteko.

Argitaratzailea: MERCADONA S.A.
Fuente del Jarro industrialdea.
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

Azalean



Hau darama modelook: Hidra-Confort makillajea, 04 zk.-ko kolorete koloreaniztuna. Grina Naturala itzal-paleta, 04 zk.-ko Grina Naturala Eyeliner Intense (alberjina-kolorekoa) eta bolumen handiko Tximeleta Hegoak betile-maskara. Ezpainak nude-kolorean, 207 zk.-ko perfiladorearekin eta 25 zk.-ko Grina Naturala Creamy Barrarekin.

Geruza bat, eta listo!



deliplus
COLOR



ADINAREN AURKAKO SEKRETUA

Urteetako ikerketen ondoren, eta dituen printzipio aktibo eraginkorrei esker, edertasun-programa mediko integral hau benetako iraultza izan da aurpegia gaztetzearen alorrean. Zure azalaren berezko oreka berrezarri eta haren bizitasuna berreskuratzeko prest?

Aurpegia gaztetzeko **Adinaren aurkako Edertasun Orokorra** programa medikoak metabolismo zelularra suspertzen du, haren printzipio aktiboek modu adimentsuan eragiten baitute azalaren egituretan. Edertasun-tratamendua osatzen dute adinaren aurkako krema batek eta bi serum edo *boosterek*, bata egunekoa (hidratatzailea eta antioxidatzailea) eta bestea gauekoa (indartzailea eta suspertzailea). Gomendatzen da erabiltzea azala zahartzearen lehen zantzuak agertzen direnetik. Testura koipetsu eta aberatsari esker, azala mamitsu eta distiratsu geratzen da.



✓ **Adinaren aurkako gaueko eta eguneko krema** algekin, sojaren proteina hidrolizatuarekin eta glukanoekin egina dago. Printzipio horiek sirtuinak –zelulen gaztetasunaz eta oxigenazioaz arduratzen dira– aktibatzen dituzte, DNA gutxiago narriatzea eragiten dute, elastina eta kolagenoa degradatzea saihesten dute, eta larruazala sendotzen dute. Gainera, kremak larruazalaren berezko defentsa-mekanismoak bizkortzen ditu.

✓ **Eguneko boosterak** *hamamelis*-estraktua, landare-komplexu hidratatzaile bat eta B12, A eta E bitaminak ditu. Azala eguzkitik eta oxidazio-estresetik babesten laguntzen du, hidratatu eta elikatu egiten du, eta zahartze-prozesua moteltzen du.

✓ **Gaueko boosterak** azido hialuronikoa eta kolagenoa ditu, zeinek dermisaren dentsitatea areagotzen laguntzen baitute, bolumena berreskuratu eta zimurrak betetzeko. Horrez gainera, malgutasuna, leuntasuna eta gozotasuna ematen dizkio azalari.

ERABILERA-GIDA

1. Goizean, azala garbi dugula, eguneko *boosteraren* hamar tanta jarriko ditugu esku-ahurrean, eta aurpegian, lepoan eta bularraldean zabalduko dugu, hidratatzailea eta antioxidatzailea baita. Gero, adinaren aurkako eguneko eta gaueko krema emango dugu, azalak erabat xurgatzen duen arte. Komeni da eguzkitik babesteko krema bat ematea ondoren.

2. Ohera joan aurretik, azala garbi dugula, gaueko *booster*a emango dugu, azala indartu eta suspertzeko. Pipetarekin hamar tanta jarriko ditugu eskuan, eta, hatz-mamiekin, aurpegian, lepoan eta bularraldean zabalduko dugu. Ondoren, gauza bera egingo dugu adinaren aurkako eguneko eta gaueko kremarekin.





Edertasunezko udazkena

Udaren ostean itxura ona izateko, azala suspertu eta indarberitu behar da. *Tipak*, produktu arrakastatsuenak eta askoz gehiago...



Funtsezko urratsa

Gel garbitzaile purifikatzailea

bereziki egokia da aurpegiko azal koipetsu eta akne-joerakoak (azal gazteenak izaten dira halakoak) garbitzeko. Goizez eta gauez, zabaldu azal hezearen gainean zirkulu-formako mugimenduekin, makillaje-hondarrak eta zikinkeriak kentzeko. Azido salizilikoari esker, poroak sakon garbitzen ditu, eta gehiegizko koipea kontrolatzen laguntzen du, azala garbi eta fresko uzteko.

Osatu edertasun-errituala **Azal koipetsuetarako lozio garbitzaile**arekin eta **fluido hidratatzaile**arekin.

Tratamendu horrekin, puntu beltzak eta zaldarrak saihesten lagunduko duzu, poroak itxiko dituzu, eta epidermisa mate mantenduko duzu. **Gel xukagarri zuzentzaile**arekin, azkarrago lehortuko dira pikorta eta zaldarrak.



Matea vs distira

Kontrastearen bila: gazteek akabera matea nahi dute azalean, eta ezpain mamitsuak nahi dituzte, distira handiarekin. Akabera **Mateko makillaje** fluidoa eta **08 zk.-ko ezpainetako distira**.



Ezinbestekoak

Zer eduki behar duzu nezeserrearren? **Rock & Volume maskara** betileei protagonismoa emateko, eta **03 zenbakiko Stick zuzentzaile berdea**, orban gorrixkak eta inperfekzioak ezkutatzeko. Eman ezazu makillaje-oinarriaren aurretik, eta azalaren tonua berdinduko duzu.



Larruazal argitsua

Pintzel argizatzaileak begi-ingurua zuzendu eta argizatzen du, gune hondoratuak altxatzen ditu, eta nekatu-itxura kentzen du aurpegitik. Gainera, argitasuna ematen die betazalei. Koloreztatu ezpainak **01 zenbakiko Color Fixekin**.

Denak batean

Azala garbitzeko ur mizelarra aproposa da zenbait produktu erabiltzea eskatzen duten garbitasun-errutinarik nahi ez dutenentzat. Makillajea kendu, azala garbitu eta zainketa gehigarria ematen dio; gainera, ez dago garbitu beharrik. Mizelek zikinkeriak eramaten dituzte, imanen antzera, eta printzipio aktiboek ongizate-sentsazioa ematen dute.

Egarri diren azalentzat

Hogeita hamar urteak beteak dituzu, eta zimurren bat edo beste ikusten duzu zure aurpegian?

Serum ultrahidratatzaileak azido hialuronikoa eta zeramidak ditu, zeinak pixkanaka askatzen baitira, azalaren geruza sakonenak ere ongi hidratatzeko. Ezin hobea da aurpegiak udaren ostean izaten duen deshidratazioari aurre egiteko.

Adinaren aurkako kremak suspertu eta berregituratu egiten du, eta adinaren aztarnei eraginkortasunez aurre egiten die. Bigun eta argitasun gabe dauden azal-mota guztietarako. Ezin hobea zimurrak leuntzeko, suspertu eta gaztetu egiten du, eta leuntasuna eta argitasuna ematen dizkie azalari.

Dermatologoek gomendatzen dute azala babestea eta eguzki gehiegi ez hartzea; eta, 30 urtetik aurrera, aparteko laguntza eman beharko genioke azalari: hidratazioa, seruma, garbiketa, tratamenduak, begi-inguruko kremak...





Beauty tip behar handiko azalak

Aktibo hidratatzaile eta zahartzearen aurkakoei esker, **Q10 larruazala sendotzeko eta adinaren aurkako Khanya kontzentratuzko aurpegiko perlek**, erregulartasunez erabilia, zimur sakonak arintzen dituzte, eta malgutasuna eta sendotasuna ematen diete azalari. Ginkgo-estraktua eta oliba-olioaren landare-eskualenoa dute, zeinek, azala elikatu eta zeta bezain leun uzteaz gainera, deshidrataziotik babesten baitute.

Dragon's Blood krema estraktu antioxidatzaile eta birsortzaile indartsu batekin egina dago, zeina *Croton Lechleri* zuhaitzaren (*dragoiaren odola* izenez ezaguna) izerdi gorritik ateratzen baita. Erradikal askeetatik babesten du azala, azal-zahartzearen zantzuak atzeratzen ditu, eta azala leun eta malgu uzten du, gaztetuta.



Agur orbanei

Udako eguzki-egunen ostean agertzen diren orbanak argitu egin daitezke, eta ezabatu ere bai. Nola? **Aurpegiko despigmentatzaileak** tratatu eta prebenitu egiten ditu eguzkiak, zahartzeak eta haurdunaldiak eragindako azaleko orbanak. Radiance CR konplexuak eta B3 bitaminak azalaren tonua bateratzen laguntzen dute, eta argitasuna ematen diote. Krema hidratatzailearen eta eguzkitik babesteko kremaren aurretik ematen da.



Makeup

Iritsi da bigarren azal bat dirudien makillaje-oinarri eta zuzentzaile hori ezagutzeko unea. Makillaje-kit perfektua dugu azal helduentzat, begira! **Ekintza Bateratua makillaje fluidoa** eta **Ekintza Bateratua zuzentzailea**, biak ere osagai sendotzaile eta adinaren aurkakoetan aberatsak; aukeratu zure azalera ondoen egokitzen den tonua.



Produktu arrakastatsuen

Mineralez, Itsaso Hileko lokatzez, azido hialuronikoz, E bitaminaz, aloe veraz eta menda-olioz egina da **Aurpegia garbitzeko Itsaso Hileko maskara**, zeinak sakon garbitzen baitu azala, koipea eta poroak buxatzen dituzten zikinkeriak ezabatzen ditu eta. Freskotasun-sentsazioa ematen du, eta antioxidatzaile indartsu bat ere baduen, malgutasun handiagoa ematen dio azalari, eta, ondorioz, freskatu eta gaztetu egiten du.



GYM TIME

Oporrak eta udako gehiegikeriak atzean utzi ondoren, gimnasia itzultzeko garaia da berriro sasoi betean egoteko. Gogoan hartu zer izan behar duzun beti entrenamenduaren aurreko eta osteko nezeserrian, eta listo!

GIZONEZKOENTZAT



1. **Gel-orrizia** / 2. **Gel-xanpua** / 3. **Acción 9.60 Sport Water**, eau de toilette gizonetzkoena / 4. **Men Protect+** esprai-desodorantea / 5. **Abdomena lerdentzeko 9.60 gela** gizonetzkoena / 6. **Koipeak erretzeko kapsulak** te gorriarekin, guaranarekin, kanelarekin eta B6 bitaminarekin.



EMAKUMEZKOENTZAT

- A** 1. Koloretako ilerako gomak / 2. 9.60 Pure desodorante naturala espraian emakumezkoena / 3. Gel esfoliatzailea / 4. Rosa Blanca Body Spray-a / 5. Egunero zaintzeko zapi intimoak / 6. Aurpegia garbitzeko apar-zapiak / 7. Ile kizkurretarako afro orrazia.



delipius

- Light gold shimmer
- Medium gold shimmer
- Dark gold shimmer
- Dark brown shimmer
- Dark purple shimmer
- Dark brown shimmer
- Light gold shimmer
- Medium gold shimmer
- Dark gold shimmer
- Dark brown shimmer
- Dark purple shimmer
- Dark brown shimmer

pasión NATURAL

Liluratzten duten kolore eta testurak, udazkenean inspiratuak. Ez huts egin makillajeko berriena: Grina Naturala bilduma guztiak harrিতa uzteko prest dago.

Lovely

Look hau lortu nahi baduzu, landu ondo azala, eta eman **Hydra-confort makillaje**-oinarria eta **04 zk.-ko kolorete koloreaniztuna**.

Erabili **Grina Naturala paleta**; kasu honetan, beheko aldean urre zahar tonua erabili da, eta betazal mugikorrean, *burgundy* tonua.

Bolumen handiko Tximeleta Hegoak betile-maskara begirada zabaltzeko. Ezpainak alberjiniakolorean **208 zenbakiko Grina Naturala perfiladorearekin** eta **26 zenbakiko Grina Naturala Creamy barrarekin**.

Eta azazkaletan **gel-efektuko 898 zenbakiko Grina Naturala esmaltea + Top Coat** distira emateko.



Elegance Nude

Look erlaxatuago bat nahi baduzu udazkeneko egunetan, eman kuartzo-koloreko begi-itzala lakrimalean eta betileen arkuan, petalo-kolorekoa betazal mugikorraren gainean, eta alberjinia-kolorekoa begia osatzeko; **Grina Naturala itzal-paletakoak** dira guztiak.

Alberjinia-koloreko 107 zenbakiko Grina Naturala begi-perfilatzailea eta **Bolumen handiko Tximeleta Hegoak betile-maskara**. Ezpainak **nude-koloreko 207 zk.-ko Grina Naturala perfilatzailearekin** eta **25 zk.-ko Grina Naturala Creamy barrarekin**. Eta, azkenik, gorri pixka bat masailetan **04 zk.-ko kolorete koloreaniztunarekin**.



**Bolumen handiko
Tximeleta Hegoak**

betile-maskarak bolumena ematen du, sustraietatik puntetara. Betileak orraztu, definitu eta biltzen ditu, eta efektu panoramikoa sortzen du begietan.



Sophisticated

Makillaje bizi eta sofistikatuago bat nahi baduzu, erabili **Hydra-confort** oinarria, eta, masailetan, **04 zenbakiko kolorete koloreaniztuna.**

Indartu begirada **Grina Naturala paletako** orkidea-koloreko itzalarekin, **alberjina-koloreko 04 zenbakiko Grina Naturala Eyeliner Intense**rekin eta **Bolumen handiko Tximeleta Hegoak betile-maskararekin.** Ezpainak ere alberjina-kolorean **208 zenbakiko Grina Naturala perfiladorearekin** eta **26 zenbakiko Grina Naturala Creamy** barrarekin.



Lovely



Elegance Nude



Sophisticated



Hydra-confort makillajea, SPF 25ekin

Grina Naturala itzal-paleta



Alberjina-koloreko 04 zenbakiko Grina Naturala Eyeliner Intense

Bolumen handiko Tximeleta Hegoak betile-maskara



25 zlk.



26 zlk.

Grina Naturala Creamy barra



107 zenbakiko ezpainerakoa

207 zenbakiko ezpainerakoa

208 zenbakiko ezpainerakoa

Grina Naturala begietarako perfilatzailea




04 zenbakiko kolorete koloreaniztuna

MAISU-UKITUA

Testura leun eta zeta-antzekoa du; gomendatzen da **Grina Naturala paletako** itzalak aparrezko pintzelarekin ematea, eta itzal-pintzelarekin lausotzea. Ausartu, eta konbinatu alberjina-tonu matea tonu metalikoren batekin, pasiozko look bat lortzeko.

GEHITZEKO...

la perfumería



Proteina, bitamina eta mineralak. Hasi barrutik ere zaintzen; eman zure gorputzari urteko hilabete beroenetatik berreskuratzeko behar duena.

1. **Bitamina eta mineral anitzeko kapsulak**
2. **Ilerako eta azazkaletarako kapsulak**
3. **Garagar-legamia kapsuletan**
4. **Garagar-legamia ezkatetan**
5. **C bitaminazko konprimatu eferbeszenteak**

GOGOAN IZAN

Garagar-legamiak proteina ugari du, zeinek muskulu-masa areagotzen laguntzen baitute; gainera, B1, B2, B3, B5, B6 eta B9 bitaminak ere baditu. Horietako bitamina batzuk onak dira nekea eta akidura arintzeko.

Nailmania

Denboraldi honetan, azazkalak
izango dira protagonista.
Geruza bat, eta listo
bildumako tonu berriak
ezagutzeko prest?



Udazken-kolorea

Jokatu ziape-kolorearen alde: tonu bero bat sasoi hotzenetarako.
891 zenbakiko *Geruza bat, eta listo* azazkal-esmaltea.

Argi-sorta

Kolore ilunak udazkenerako, betiere kolorez eta distiraz beteak. 889 zenbakiko *Geruza bat, eta listo* azazkal-esmaltea + edizio mugatuko nezeserra.



Erabateko dotoretasuna

Sofistikazioa eta misterioa. 887 zenbakiko
Geruza bat, eta listo azazkal-esmaltea.





1



2



1. Ziape-koloreko 891 zenbakiko **Geruza bat, eta listo azazkal-esmaltea** + edizio mugatuko **nezeserra** (zenbait modelo eta kolore aukeran).
2. 889 zk.-ko **Geruza bat, eta listo azazkal-esmalte granatea**.
3. 887 zk.-ko **Geruza bat, eta listo azazkal-esmalte grisa** + edizio mugatuko **nezeserra** (zenbait modelo eta kolore aukeran).



3



UR MIZELARRA

ZURE AZALA GARBITU, DESMAKILLATU ETA ZAINTZEN DU



Zooma BEGI ETA EZPAINETARA

Askotariko begi- eta ezpain-formak daude; ikusi zein den zurea, eta ikasi ahalik eta probetxu gehiena ateratzen.



✓ **Nola makillatu ezpain handi, mamitsu edo lodiak?**

Zure ezpainen tamaina disimulatu nahi baduzu, eman makillaje-oinarria ezpainenakoaren aurretik. Gero, profilatu itzazu berezko lerroaren barrutik; txikiagoak eta estuagoak direla emango du. Ez erabili glossik eta antzeko distirarik, handiagoak emango baitute.




✓ **Nola makillatu ezpain txiki eta estuak?**

Erabat desberdinak aurrekoekin alderatuta; profilatzeko, jarraitu ezpainen berezko lerroa, kanpotik. Eman ezpainenako barra krematsu bat, distiratsua edo *gloss* motakoa, eta bolumen-sentsazioa lortuko duzu.

✓ **Ezpain asimetriko edo eroriak**

Lodierak berdindu nahi ditugunez, alde estuenak profilatuko ditugu, alde lodienekin berdintzeko. Beheranzko ertzak dituzten ezpainen zahartu egiten dute, eta triste-itxura ematen dute. Makillatzen dituzunean, marraztu gorantz ertzetako marra.





Badakizu nola makillatu begi erori, hondoratu edo irtenak?

Betazal eroriak izanez gero, lehenengo araua da itzal ilunak saihestea, txiki eta

itxiagoak ikusiko baitira. Sakontasun handiagoa lortzeko, erabili tonu ertaineko itzal mateak, eta definitu tonu ilunago batekin. Begi hondoratuek kolore argiak behar dituzte, begirada ireki eta argiztatzeko. Begi irtenak izanez gero, luzatzea eta lerrokatzea bilatuko dugu. Komeni da tonu ertain eta iluneko itzal mateak erabiltzea, marra luzexkak egitea eta, betile-maskara ematean, lakrimaletik urrunen dagoen aldea nabarmentzea.

Begiak handitzeko tipak

Erabili itzal metalizatuak. Profilatutako begiaren ertza tonu ilunago batekin, gorantz. Eman tonu ertain bat betazal finkoan, eta argiago bat lakrimalean. *Eyliner* gel batekin eta pintzel alakatu batekin, marraztu marra bat goiko betileen gainean, eta, amaieran, marraztu goranzko marra bat.

Eta azken ukitua: betile-maskara.

Moldatu eyelinera zure begien formara

- ▶ **Begi elkartuak:** marratu betileen sustraieren goiko eta beheko aldean erditik kanpora, eta, muturrera heldu ahala, joan lerroa zabaltzen.
- ▶ **Begi bereziak:** onena da lakrimaletik marraztea, eta marra lodiago bat egitea betileen sustraian.
- ▶ **Begi eroriak:** goiko betileen sustraitik gorantz eta kanporantz marraztu behar dira, eta beheko aldean lerro oso fin bat egin.
- ▶ **Begi biribil eta hondoratuak:** begirada luzexkagoa lortzeko, marra egin behar da betileen erdialdetik kanporantz, eta muturrean goranzko marra bat marraztu. Eta beheko aldean marra leun horizontal bat marraztuko dugu.

Ikasgelako onena



Heldu da eskolara
itzultzeko garaia

Aholku eta ideia hutsezinak
ikasturtea ongi hasteko.

Haurrentzako nezeserrak,
zenbait modelo aukeran.

✓ ZORRIEN AURKA

Bazenekien **te-zuhaitzaren olio**a zorrien aurkako erremedio natural eraginkor bat dela? Haren aroma biziak giza usaina (zorriak erakartzen dituena) ezkututzen du. Jarri 1-3 tanta 25 ml inguru xanpu, lozio edo uretan, eta zabaldu ilean eta buru-azalean, beharraren arabera.



✓ EZINBESTEKOA

Eraman **eskuetarako eta aurpegirako zapiak** eskolako motxilan; eduki itzazu beti eskura haurren azal delikatua garbitu eta zaintzeko.

la perfumería



✓ HAUREN DEFENTSAK ZAINDUZ

Haurrentzako jelea-propoli anpoilak bitaminekin eta azido folikoarekin.



✓ HAUREN ZAURIETARAKO

Haurrentzako Justice League eta **Santoro Gorjuss** babes-zerrendak; ura jasaten dute.



✓ KIDS BEAUTY

Bainurako, **Frozen** eta **Spiderman** haurrentzako belakiak. Eta ondoren... **Minnie Mouse** kolonia eta **Superman eau de toilette**.



Ile-kontuak

Udazkenari ongietorria emateko, hiru look erraz eta dibertigarri ekarri ditugu. Gogoan hartu, eta eginiezazkiozu alabatxoari.



Txirikorda-mototsak

Arraia erdian eginda, batu ilearen aurreko aldean bi txirikorda luzetan. Gero, banatu ilea bi sekziotan, eta lotu Minnieren gomekin txirikorda eta mototsa, biak batera. Azkenik, erabili Minnieren klipak solte geratzen diren ileak jasotzeko.



Txirikorda-koroa diademarekin

Orraztu ilea bi zatitan, erdian marra eginda.
Egin bi txirikorda, eta lotu gomekin.
Elkartu buruaren inguruan, eta lotu klipekin.
Jarri Minnie Mouseren diadema, eta... ready!



Moñoak begiztekin

Hasteko, banatu ilea bi sekziotan, arraia erdian. Egin bi motots eta lotu goma banarekin. Kiribildu bi mototsak moño baten antzera, eta jarri gainean Minnieren begiztak.



Ilerako klipak eta goma finak.



NEZESERRAK

edizio mugatua



SOPLO



Lastan leua bat zure azalean